

2021eko balantzea**EROSKI-K 65 FRANKIZIA INAUGURATU ZITUEN
2021EAN**

- **8 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu, eta 306 lanpostu sorrarazi**
- **Salmenta emaitza bikaina: pandemiaren aurreko mailarekin alderatuta, %14 gehiago**
- **EROSKIren *Rapid* formatuak bikoiztu egin du irekiera erritmoa, eta gaur egun horrelako 46 supermerkatu ditu dagoeneko**
- **Gasolindegietan irekitzen diren denden kopurua goruntz: 2021ean 14k zabaldu dute atea**
- **Ereduan konfiantza: aurten irekitako denden %50 beste frankizia hartzaile batzuei dagokie**

Elorrio, 2022ko otsailaren 23a.- [EROSKI](#)k 65 frankizia inauguratu ditu 2021ean. Guztira, 8 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu, eta 306 lanpostu sorrarazi. Hedapen horren bitartez eta denda propioen sarea eraldatzeko ekimenaren bitartez, bultzada indartsua hartu du EROSKIren belaunaldi berriko dendak ezaugarritzen dituen Zurekin eredu komertzialak.

Autonomia erkidego hauetan egin ditu kooperatibak inaugurazio gehienak: Katalunia (18), EAE (13), Andaluzia (7), Galizia (6), Balearrak (5) eta Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa eta Madril hiruna irekierarekin. Haien atzetik doaz Valentziako Erkidegoa eta Nafarroa binarekin eta, azkenik, Errioxa frankizia erako denda irekiera bakararekin.

Aurreko urteetako irekieren erritmoari eutsi dio EROSKI; hala, 250 inaugurazio baino gehiago egin ditu joan deneko bost urtean. Gauzak horrela, urte amaieran, frankizia erako 577 supermerkatu zituen, eta sarearen salmentak bikainak izan dira, %14ko hazkundea izan duelarik pandemiaren aurreko 2019ko salmentekin alderatuta.

Hala, jarraitzen du frankizien sarea hedatzen, fokua lurralde hauetan ipinia duelarik datozen urteetarako: Andaluzia, Madril, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Levante. 2022ko ekitaldian, EROSKIren asmoa da 75 inauguratzea.

***Rapid* formatuak irekiera erritmoa bikoiztu du**

Martxan jarri zenetik bost urte igaro diren honetan, EROSKIren *Rapid* formatuak bikoiztu egin du 2021ean izen hori duten denden irekiera erritmoa. Gaur egun, 46 supermerkatu ditu *Rapid* izenarekin; horietatik hogeitaz inauguratuak. Hortaz, urte horretan bultzada argia jaso zuen formatu ultrahurbilak. Oso eredu komertzial lehiakorra da, eta gutxi gorabehera 150 metro koadroko denda txikiek osatzen dute. Nabarmentzekoa da erosteko orduan ematen dituen erraztasuna eta azkartasuna. Irekiera ordutegi zabal bat dute, eta urteko egun guztietan irekita egoten dira. Kontsumitzaileek 4.500 erreferentzia ere aurkitu ahal dituzte, eta, horretaz gainera, ogiak eta opilak labe propioan erre berriak, eta kafea hartzeko gunea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
KRISTIAN PRIETO

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

"Pandemiak bultzada indartsua eman dio saltegi ultrahurbilari, eta lehen erosketa aukera bihurtu da orain arte ikusi ez den merkatu kuotak lortuta. Gure frankizia formatu komertziala oso ongi egokitzen da bezeroen beharretara, eta aberastasuna sorrarazten dugu bera dagoen inguruneetan, gu gaude eskualdeetako produktuen alde egiten baitu", esan du EROSKIren Frankizia Saileko zuzendariak, Enrique Martinezek.

Joan den urtean, EROSKIk eta AVIA petrolio operatzaileak sendotu egin zuten hitzarmena, eta elkarrekin EROSKI *Rapid* izeneko frankizia supermerkatuak hedatzen jarraituko dute AVIAaren gasolindegietan, hitzarmen hau martxan jarri zenetik bi urte pasatu diren honetan balantzea aski positiboa izan baita. 2021ean 14k zabaldu dute atea gasolindegietan. Gaur egun, EROSKIk hogeit hamar supermerkatu baino gehiago ditu zerbitzuguneetan, eta asmoa da sarea gehiago hedatzea datozen urteetan.

Frankizia hartzaileen konfiantza

EROSKIren eredu komertzialak zenbait oinarri ditu: tokiko eta eskualdeko produktuak integratzen ditu; elikadura osasungarria sustatzen du, bere jardute lerroetan eta marka propioan oinarrituz; bezeroari aurrezten laguntzen dio; eta gizarte erantzukizunarekin eta garapen iraunkorarekin konprometituta dago. EROSKIk irmo egiten du gaur egun lehenesten den frankizia eredutik aparteko zerbait eskaintzeko merkatuari, eta badirudi frankizia hartzaileengan eragin baikorra duela horrek. "2021ean ireki ditugun denden erdiak lehendik gurekin frankiziak hartuak zituztenek bultzatuak izan dira. Langile kooperatiba bat gara, desberdin egiten gaituzten balio propioekin, eta, beraz, EROSKIk ulertzen ditugu ekintzaileen zalantzak eta beharrak. Gure ustez, balio horiek ezinbestekoak dira marka eraikitzeko", azpimarratu du Enrique Martinezek.

EROSKIren frankizia eredu eredu sendoa da, eta konfiantza ematen die frankizia hartzaileei. Haiek dira ereduaren babesle nagusiak. "Gure frankizia hartzaileei egindako kanpo inkesta baten arabera, %96k gomendatu egiten dute eredu. Gure harremana konfiantzan, zintotasunean, babesean eta balio partekatuetan oinarritzen da", gaineratu du EROSKIren Frankizia Saileko zuzendariak.

EROSKIren frankiziak bi alderditatik datoz, bata autoenplegua bilatzen duten ekintzaileak eta haien ingurune hurbila (hartzaile guztien %57 direnak) eta bestea inbertsiogileak eta enpresariak, elikagaien banaketa sektorearen alde apustu egin nahi dutenak arrisku txikiarekin eta errentagarritasun egokiarekin. Soslai hori dagoeneko %43ak osatzen du, eta nabarmen goraka doa azken urteetan.

Lankidetzak hitzarmenak

Kooperatibak eusten die Enpresaburu Gazteen Elkartearen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE) dituen lankidetzak hitzarmenei, enpresari gazteen ekintzailetza lagundu eta sustatzeko, eta akordio bat du ATArekin, hau da, Enpresarien eta Langile Autonomoen Elkartearen Espainiako Federazioarekin. Hitzarmen horiekin, ekintzailea indartzeko konpromisoa hartu ez ezik, EROSKIk autonomia erkidegoetako ekonomia garatzen lagundu nahi du.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
KRISTIAN PRIETO

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA. G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)